

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** egiten du “gobernukide ohien gobernu legeak ezartzen dituen biziarteko pentsioei buruzkoa”, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

ZIOA

Eusko Legebiltzarrean 1995ean politikoaren eta goi karguen estatutuaren araudia aztertzeko lan taldea eratu zen. Han egindako lanaren ondotik, 1999ko abenduan onartu zuen Legebiltzarreko osoko bilkuran lantaldearen ondorioen ebazpena. Aldiz, eta kontuan izanik han jasotako ondorioak ez zirela gauzatu, egokitu ikusten dugu Legebiltzar honek berriz ere gaiari eustea eta orduan hasitako lana berriro irekitzea eta gehiegizkoak izan daitezkeen eskubideak eta pentsioak berrikustea.

Hori dela eta, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrari proposatzen dio lan-talde bat osatzea politikoaren eta goi karguen estatutua berraztertzeko bai eta gobernu legeak ezartzen dizkien biziarteko pentsioen egokitasuna aztertzeko eta berrikusteko.

Gasteizen, 2010eko otsailaren 17an

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea